



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B

Tel. 948637005

www.lesaka.eus

udala@lesaka.eus

AKTA –BEHIN-BETIKO KALIFIKAZIOA.18372R ESPEDIENTEA.

Deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagokion Administrari ofizialen bi lanpostu hutsak lehiaketa-merezimendu bidez betetzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Lesakan, 2024ko otsailaren 7, goizeko 8:00etan, Lesakako Alkatzaren bulegoan bildu dira jarraian adierazitako pertsonak, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagokion administrari ofizial bi lanpostu huts merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren epaimahaia osatzeko izendatuak, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoarekin bat etorritz:

- Lehendakaria:** Ladis Satrustegui Alzugaray, Lesakako Udaleko alkatea.
- Bokala:** Iñigo Urdangarin Zurutuza, Lesakako Udaleko kontuhartzailea.
- Bokala:** Maria Begoña Alzugaray Lecuona, Lesakako Udaleko administrari ofiziala.
- Bokala:** Mikel Gotzon Ortiz de Urbina Olaetxea, Lesakako Udaleko langileen ordezkaria.
- Idazkaria:** M. Jose Larrayoz Ariztegui, Lesakako Udaleko idazkaria.

Aipatutako lanposturako hautagaiek aurkeztutako merezimenduak baloratu eta argitaratu ondoren, eta horretarako irekitako epean alegaziorik aurkeztu ez denez, epaimahaiak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehenengoa: Oposizio-aldiko eta lehiaketako azken kalifikazioak behin betiko onartzea. Puntuazioaren arabera, honako hau da emaitza:

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.eus/eu/>



005405145762438991092



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B

Tel. 948637005

www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

ASPIRANTE	OPOSAKETA	LEHIAKETA	TOTAL
1.-***7418**	41,50	23,63	65,13
2.-***4539**	49,50	3,91	53,41
3.-***1916**	36,25	13,50	49,75
4.-***6168**	39,75	3,40	43,15
5.-***7049**	38,00	2,19	40,19
6.-***1413**	32,50	2,77	35,27
7.-***7986**	30,75	0,43	31,18

Bigarrena.- Deialdiaren 7.4.3. oinarrian ezarritakoaren arabera, epaimahaiak erabaki du merezimenduen behin betiko balorazioa deialdiaren web-fitxan argitaratzea, toki-erakundearen egoitza elektronikoan.

Hirugarrena.- Deialdiaren 8. oinarrian ezarritakoaren arabera, epaimahaiak erabaki du prozesuaren behin betiko emaitza puntuaziorik handiena lortu duen 2 izangaiari helaraztea, eta 10 egun balioduneko epea ematea Lesakako Udaleko bulegoetan honako dokumentazio hau aurkez dezan:

a). Deialdiaren ezaugarrien taulan eskatzen diren tituluen kopia, edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu direla frogatzen duen gordekinarena, edo, bidezkoa denean, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik titulua eskuratzeko moduan zegoela frogatzen duen ziurtagiria.

b) Euskararen edo beste hizkuntza ofizial baten hizkuntza eskakizuna duen lanposturen bat eskuratu nahi duten izangaiak aurkeztu beharko dute eskatutako maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiri bat, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera, zehazki, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak irailaren 13an emandako 210/2010 Ebazpenean aipatzen diren titulu edo ziurtagirietako edozein

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.eus/eu/>



005405145762438991092



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B

Tel. 948637005

www.lesaka.eus


udala@lesaka.eus

(2010eko 117. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 27koa). Dauden titulazio ofizialez gain, aurkez daitezke Nafarroako Administrazio Publikoetan, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz, egonkortze-prozesuak gauzatzeko neurriak hartzen dituen Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarria aplikatuz antolatutako maila-proben bidez Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak emandako egiaztagiriak. Maila-proba horiek deialdi hau argitaratu ondoren egin daitezke eta, horrenbestez, deialdia argitaratu ondoren aurkez daitezke egiaztagiriak.

c) Hala dagokionean, ezaugarrien taulan zehazten denaren arabera, abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuan araututako Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko da, adingabeekin ohiko harremana duten lanpostuetan aritzeko baldintza baita.

d) Halakorik bada, indarkeriaren biktima diren emakumeen izaera baliarazi duten izangaiek hauetakoren bat aurkeztu beharko dute: kondena-epai bat genero-indarkeriako delitu batengatik, babes-agindu bat edo genero-indarkeriaren biktimaren aldeko kautelazko neurri bat erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizial. Halaber, izaera hori egiazta dezakete gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimentzako Administrazio Publiko eskudunaren harrera-zerbitzuen txostenaren bidez.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da 8:15etan. Ados daudela adierazteko, akta hau sinatu da, eta horren fede ematen dut, idazkari naizen aldetik, lehendakariaren oniritziarekin.



Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>
Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikokoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.eus/eu/>



005405145762438991092

